

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA  
OGASUN ETA FINANTZA SAILA

### 3361

*146/2025 DEKRETUA, uztailaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025erako Aurrekontuan kredituak sartzeari buruzkoa, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizunak gehitzearen ondorioz.*

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 75. artikulua honako hau ezartzen du (testu bategin hori maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartu zuen, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea): Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen edo zerbitzu berriak eskuratzen baditu Estatutik, eskumen-aldaketaren ondorioz sortutako betebeharrak eta likidatuko diren ekonomia-eskubideak betetzeko behar diren kredituak txertatu beharko dira aurrekontu orokorretan. Halaber, Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian azken aldiz argitaratu eta hogeiei egun baliodun igaro baino lehen, Jaurlaritzak eskumen edo zerbitzu berriari dagozkion gastuen eta sarreraren egoera-orria onartuko du eskumenaren edo zerbitzuaren transferentzia gauzatu den ekonomia-ekitaldia amaitu arte gelditzen den aldirako.

2025eko ekainaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean, ekainaren 17ko 512/2025 Errege Dekretua argitaratu zen, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan Estatuko Administrazioaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa. Halaber, 2025eko ekainaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 17ko 127/2025 Dekretua argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baita aipatutako arloari dagokionez Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabaki bat, zehazki, ekainaren 24ko 895/2011 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuko Administrazioaren eginkizunak zabaltzekoa.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak, 2025eko uztailaren 15eko bilkuran, proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Kredituak txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko aurrekontuan.

1.– 20.572,00 euroko gastuen egoera-orria onartzen da, betebeharrak hauei aurre egiteko behar den zenbatekoaz osatua: Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren ikuskaritzako funtzio publikoaren arloan Estatutik hartutako eginkizun eta zerbitzu berrien ondoriozko betebeharrak.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarreraren egoera-orria 20.572,00 eurokoa da.

3.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren sarreraren eta gastuen egoera-orriak 2025eko uztailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko aldiari dagozkio. Honela xehatzen dira:

2025eko uztailaren 31, osteguna

Gastuak:

3112 programa – Lana.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
3112	244.99	20.572
	Guztira	20.572

Diru-sarrerak:

9111 programa – Foru-aldundien ekarpenak.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9111	420.00	3.300
9111	421.00	6.910
9111	422.00	10.362
	Guztira	20.572

2. artikulua.– Kredituak txertatzearen ondorioak.

1.– Ogasun eta Finantza Sailak aurreko artikuluan aipatu diren gastuen eta sarreraren egoera-orriak integratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko aurrekontuan, dagozkion ondorio juridikoak izan ditzan, eta, bereziki, egoera-orri horien kontabilitatea, exekuzioa eta ondorengo likidazioa egoki gauza daitezen.

2.– Urriaren 7ko 4/2021 Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen 2022-2026 aldirako; bada, metodologia horren 8. artikulua 1. apartatuan xedatzen denarekin bat etorriz, Kupoaren metodologiatik datozei –aipatutako metodologiaren 2. artikuluan zehaztuak– beste kenkari gehigarri bat egingo zaie 2025eko ekitaldian, 20.572,00 eurokoa.

3.– Aurreko apartatuan adierazitako metodologiaren 8. artikuluko 3. apartatuak xedatutakoarekin bat etorriz, eta eskualdatze berriak finantzatzeko aldera, foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen berezi eta osagarri bat egingo diote 2025eko ekitaldian; 20.572,00 euroko ekarpena, hain zuzen ere.

4.– Aurreko 2. eta 3. zenbakietan adierazitako ondorioak egun honetatik aurrera aplikatuko dira: itsasertza antolatu eta kudeatzeko arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea eraginkorra den egunetik aurrera.

3. artikulua.– Kupoan minorazio bat aldatzearen ondorioak.

1.– Apirilaren 3ko 10/2023 Legeak Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia onartu zuen 2022-2026 bosturterako; bada, metodologia horren 11. artikulua lehen eta bigarren apartatuen arabera, 2025eko ekitaldiko kupo likidoaren minorazio efektiboaren ondoriozko emaitza izango da behin betiko zenbatuko dena dekretu honen aurreko artikulua 2. zenbakian aipatutako kenkari gehigarrian.

2025eko uztailaren 31, osteguna

2.– Eraitza hori bera zenbatuko da, halaber, dekretu honen aurreko artikuluko 3. apartatuan aipatu den ekarpen berezi eta osagarrian.

3.– Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Sailari artikuluko honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz egin behar den aldaketa oro egiteko.

4. artikulua.– Eusko Legebiltzarrari jakinaraztea.

Ogasun eta Finantza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziko dio dekretu honetan xedatutakoaren babesean egindako kreditu-kontsignazioa.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, orduan gehituko baitira dekretuan aipatzen diren eginkizun eskualdatuak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 15ean.

Lehendakaria,  
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua,  
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,  
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.